

Lezo Urreiztieta (1907-1981). Biografia. Martin Ugalde

J. Muñoz

HABE, 175. zk., 1990-05-14: 29.

Martin Ugalde andoaindar idazle oparoak aspaldi ekin zion elkarrizketen bidez, ezagutu beharko genituzkeen zenbait pertsonaiaren berri emateari. Kazetari eta idazle, biek topo egiten duten arloan iharduna da batipat, euskaldunok gure historiaren jabe eta jakitun egiteko saioan. Euskal kulturaren, historian eta politikan funtsezkoak diren pertsonaien autoerreturatuak moldatu izan ditu elkarrizketa luzeetan. Oraingoan Lezo Urreiztieta erreskatatu du ahanzturatik.

Gerra aurreko, gerra garaiko eta ondoko pasadizoak kontatzen dizkigu Lezok, eta Ugaldek moldatu, antolatu eta dokumentatu ditu, gero. Abenturaren ikuitu zirrargarria dauka Lezoren biografiak: kontrabandista amorratua, abertzale sutsua, noren alde kontrabandoa egin ongi zekien horietakoa.

Ekintza-gizona da Lezo Urreiztieta, garai zalapartatsu eta gogorretako lekuko berezia. Baina, beharbada, liburu honetan pertsonaiaren gihar nobelistikoa erraz antzematen bada ere, erdipurdi geratzen da irakurlea, elkarrizketaren, nobelaren. nota periodistikoaren eta datu argigarrien artean, entrebista, kronika edo historia nobelatua, aurrean zer daukan asmatu ezinik. Azkenean, elkarrizketaren transkripzio montatu eta anotatua iruditu zait, gordinegia apika, albaindua soilik pasarte bat baino gehiagotan.

Hala ere, gehiagoren irrikia uzten badu ere, sakondu edo osatu gabea badirudi ere, Lezo Urreiztieta eta Lezok bizitu zituen garai eta abertzaletasunari, hurbilketa bizia egiten die.